



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko azaroaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko azaroaren zazpian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2023ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2023ko azaroaren 3a

9. ERABAKIA: DENBORA EZ OSOKO TEKNIKARI LAGUNTZAILE BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA

(4.1.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio eskola publikoko eta Ikastolako haurrak Arrosako "planetariumera" garraiatzeko denbora ez osoko teknikari laguntzaile lanpostu ez iraunkorra sortzea. Haurren garraioak honako egun eta orduetan eginen dira: azaroaren 16an ostegunarekin 8:30tik 11:30ra, azaroaren 17an ostiralarekin 10:30tik 13ra eta 14:30tik 17:00etara.

Enpleguan 2023ko azaroaren 16 eta 17 egunetarako sortu da.

Lan denbora zortzi oreneko izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baituten kontratupekoak kontratatzea behin behineko jarduera emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 387ko indize gordina aplikatu dako.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

- **ERABAKI DU** - 2023ko azaroaren 16 eta 17rako denbora ez osoko eta behin behineko teknikari laguntzaile enplegu baten sortzea, 8 oreneko lanaldiarekin.
 - enplegu horrek 387ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.
- **BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari eranskinean den lan kontratuaren izenpetzeko.
- **ONARTU DITU**, Auzapezaren proposamen guziak.
- **- ZEHAZTU DU**, urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko azaroaren 7an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/11/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/11/14an.